



**2010EKO APIRILAREN 14KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko apirilaren hamalauan, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte eta Amagoia Naldaiz Mingo zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2010eko martxoaren 10ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 3 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HIRUROGEITA HAMABI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (72.660,74 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 10-11-004 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea, martxoaren 30etik aurrera, bizilekuz aldatu delako.

- 127 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, apirilaren 6tik hasita, astean 5 egun eta egunean 3 ordutik astean 6 egun eta egunean 3 ordura. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %3 da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 700 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,5€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 198 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko, hilean 62,74€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %94 da.

...///...

- 505 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 92,5€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 175 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 58,08€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 451 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 88,13€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 103 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 92,5€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 111 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimenturako hilean 92,5€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 28 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 490 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 489 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 79,55€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %86 da.
- 627 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko hilean 297,50€ko dirulaguntza ematea eta etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 47,41 € ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 135 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,50€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 573 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 31,09€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 692 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 62,96€ ematea eta alokairurako 212,98€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 670 zbk.dun esped.: Laguntza ekonomikorik ez ematea baldintzak ez betetzeagatik.
- 564 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 79,55€ ematea eta aurretiko zorpetze gastuetarako 149,68€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %86 da.
- 615 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 68,45€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %74 da.
- 853 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak eta alokairua ordaintzeko egindako eskariari ezetza ematea dirusarrera baldintza ez betetzeagatik.

...///...



- 09-1-007 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 75,85€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %82 da.
 - 09-1-008 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 92,5€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
 - 09-1-012 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko dirulaguntza etetea bizilekuz aldatu delako.
 - 722 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairua ordaintzeko dirulaguntza etetea martxotik hasita, baldintzak ez betetzeagatik.
 - 09-01-015 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 41,90 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
 - 825 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairuko gastuetarako hilean 256 € ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %80 da.
 - 09-01-016 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 79,81 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
 - 692 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairuko gastuetarako hilean 252,42 € ematea eta eta etxebizitzaren mantenimentuko gastuak ordaintzeko hilean 78,91€ ematea, urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
 - 09-01-017 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 85,10 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %92 da.
 - 09-01-004 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren mantenimentu gastuak ordaintzeko hilean 92,50 € ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- Telealarma.-
- 10-12-001 zbk.dunn esped.: telealarmaren instalaziorako 61,35 € eta mantenimendu gastuetarako urtean 65,36 € ematea. Ematen zaion dirulaguntza telealarma kostuaren %75 da.

Garraiorako dirulaguntza.-

Ordiziako Gureak Tailerretarako garraioa ordaintzeko 2010 urterako honako dirulaguntza hauek ematea:

- 411 zbk. dun esped.: urtean 380,60 €, hauda, hilean 34,60 € abuztuan izan ezik.
- 252 zbk. dun esped.: urtean 380,60 €, hauda, hilean 34,60 € abuztuan izan ezik.
- 188 zbk. dun esped.: urtean 380,60 €, hauda, hilean 34,60 € abuztuan izan ezik.
- 107 zbk. dun esped.: urtean 380,60 €, hauda, hilean 34,60 € abuztuan izan ezik.

...///...

IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kirol Batzordeak Tokiko Gobernu Batzar honi, Lazkao Kirol Elkarteari, kirol jardue-
ren antolaketa eta sustapen gisa 2010eko dirulaguntzaren kontura eta aurrerapen gisa,
SEI MILA (6.000 €) euro emateko proposamena egiten dio.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide
guztien aldeko botuekin, prosamena onartzea erabakitzen du.

V.- 2010EKO UDAKO KIROL KANPAINA.-

Kirol Batzordetik Udako Kirol Kanpaina 2010 egitasmoa aurkezten da. Kanpaina
hau ekainaren 21etik uztailearen 16ra bitartean burutuko da. Kanpaina honen aurrekontua
hamahiru mila bostehun eta bat euroakoa (13.501 €) da eta ikastaroen diru-sarrerak eta
Foru Aldundiko dirulaguntza kontutan izanda aurrikusitako defizita bi mila hirurehun et
zortzi (2.308 €) euroakoa da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, egitasmoa, bere espedientean dagoena, aztertu ondo-
ren, Udako Kirol Kanpaina 2010 hau onartzea erabakitzen du.

VI.- 2010EKO SAN PRUDENTZIO JAIK.-

Aurtengo San Prudentzio jaiak direla eta, jai hauen egitaraua eta bere aurrekontua
aurkezten dira Tokiko Gobernu Batzar honetara, bere onarpenerako.

2010ko San prudentzio Jaiak apirilaren 23an hasi eta maiatzaren 9an amaituko di-
ra, maiatzaren 8 eta 9an Lazkaomendi auzoan izango direlarik.

2010ko San prudentzio Jaien egitarauaren aurrekontua, guztira, EHUN ETA HIRU
MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA SEI (103.886 €) EURO da.

Tokiko Gobernu batzarrak, 2010eko San prudentzio jaien egitarau hau, bere espe-
dientean aurkitzen dena, aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko
botuekin, berau onartzea erabakitzen du.

VII.- 2010EKO SAN PRUDENTZIO JAIETAKO TXOZNAK.-

Festetan irekitzen diren taberna eta txoznen inguruan 4 eskaera egon dira eta ho-
rietatik hiru txoznak jartzeko eskariak izan dira eta bat taberna jartzekoa.

Tokiko Gobernu Batzarrak, eskariak aztertzeke garaian aurreko urteetako erizpide-
ak jarraitzea ikusten du egoki eta ondorioz, lokaletan jarritako baimendutako tabernen ko-
purua gehienera ere 2 izatea eta txoznen kopurua, berriz, 4.

Tokiko Gobernu Batzarrak, eskaera hauek aztertu ondoren, honako erabaki hauek
hartzen ditu:

Taberna jartzeko baimen bat ematea egon den eskatzaile bakar honi: Idoia Agirre-
zabala Navarro, N.A. zbkia.: 72.478.905-V, Lazkaoko Ezker Abertzalearen izenean.

Txoznak jartzeko bi baimen ematea eskaera egin duten ondorengo bi eskatzaileei:
Gorka Herrero Sanchez, N.A. Zbkia. 72.478.905-V, Dispertsioaren Aurkako Taldearen ize-

...///...



...///...

nean; eta Iker Iruin Arruti, N.A. Zbkia. 72451567A, Lazkaoko Presoen Aldeko Taldearen izenean.

Baimenik ez ematea Gazteak taldearen izenean Unai Casado Fernandezek txozna jartzeko egin duen eskariari, izen horrekin Lazkaon jarduera duen inolako talderik ez delako ezagutzen.

Txoznak jartzeko ematen zaizkien baimenei jarraian adierazten diren baldintzak ezartzen zaizkie:

- Txoznak jartzeko kokalekua Udaletxe atzea izango da.
- Txozna eta taberna bakoitzak 155 € euro ordaindu beharko du, hau da, iazkoa KPIren aldaketaren igoerarekin.
- Txozna eta taberna hauen jarduera apirilaren 23tik 25era eta apirilaren 27tik maiatzaren 1era mugatu da soil soilik.
- Ixte ordutegia, geihenez ere goizeko lau terdiak izango da.
- 18 urtez beherakoentzat alkohol salmenta debekatuta dagoela adierazten duen kartelak jarri beharko dira ikus daitezkeen tokietan.
- Txoznak kentzeko azken eguna maiatzaren 3a izango da.

Tasa ordainketa maiatzaren 31a baino lehen egin beharko da, Udalak herriko banketxetan horretarako dituen edozein kontu korrontetan.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

